

2019/2020

www.laiaeskola.eus



LAIA eskola

Arabako emakumeon jabe-kuntzarako eta
berdintasunerako eskola

ARABAKO
LAUTADAKO
KUADRILLA



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

LAI Aeskola Lautada

INFORMAZIOA, KONTAKTUA
ETA IZEN-EMATEAK

Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:

☎ 945 30 12 00

✉ berdintasun@arabakolautada.eus


📍 Senda de Langarica Plaza 4. 01200 Salvatierra-Agurain, Araba


www www.arabakolautada.eus

Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Hautzaindegi eta garraio zerbitzua: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Eguneratuta egon zaitezten, eman izena **hileroko buletin digitalean** web orriaren bidez! Ekintza, baliabide, gaurkotasan zein berritasunen inguru-ko informazioa jasoko duzu.

 @Laiaeskola

 @LaiEskola #LAI AeskolaLautada

 www.laieskola.eus

Kuadrillako berdintasun ekintzei buruz informazio +:

<https://drive.google.com/drive/folders/1zLWYTLb12HxSF01zizmxnT9LAh6Gkb6f>



LAI Aeskolakoko Idazkaritza teknikoa: Berdintasun proiektuak, S. Coop.
Diseinua eta Maketazioa: La Debaclé
L.G.: VI-767/2019



Eduki hau Creative Commons Aitortu – BerdinPartekatu (by-sa) lizentziapean dago, lanaren eta bertatik eratorritako lanen erabilera komertziala ahalbidetzen du, jatorrizkoaren lizentzia bera erabiliz.

Aurkibidea

LAI Aeskola Arabako Lautada	5
Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena	6
Arabako Lautadako I. Berdintasun Planaren ebaluazioa eta II. Berdintasun Planaren lanketa parte-hartzailea	7
Parte-hartze espazioak	9
LAI Aeskolaren programaren aurkezpena eta Arabako Lautadako Berdintasunaren aldeko Eskualde Topaketa	11
“Ordu bioleta” Irakurle-Klub Feminista gaztelaniaz	12
Emakumeen ekarpen historikoa Zalduekondon	13
Indarkeria matxisten aurkako kanpaina “Itzali matxismoa, jazarpenari aurre egin”	14
Donemiliagako emakumeen beharren azterketa berdintasunaren ikuspegitik	15
Beldur Barik Gunea	16
Berdintasunaren aldeko ipuin laburren III. lehiaketa	17
Jolas Hezkideen X. Jaialdia	18
Antzerkia: “Lur”	19
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ikastaroak	20
Argazki erakusketa: “Artea kirolean... eta zuk hemen zer?”	21
Lantegia: “Emakume oso eta kontzientea”	22
2019ko Berdintasunerako Foroa: “Nik erabakitzen dudana izango naiz”	23
Berdintasunaren aldeko eta Kuadrillako emakumezkoen kirola sustatzen duten klub eta kirol-elkarteen errekonozimendurako bizikleta martxa	24
II. Burgeluko Emakume Autonomoen Topaketa: “Bigarren atalak beti izan dira hobeak”	25
Ipuin kontaketa: “Zazpi neska ausart”, kontalari eta saxofonista baten eskutik	26
Lantegia: “Feminismo beltzak, periferikoak eta dekolonialak”	27
Lantegia: “Pribilegio gabe ez dago zapalkuntzarik”	28
Indarkeria matxisten kontrako martxa Ozetatik Gebarara	29
Coral Herrerearekin Solasean: “Erromantikotasuna politikoa da: maitatzeko beste modu batzuk posible dira”	30
Antzerkia: “Sex edo ez sex”	31
“Txorien Jantokiak” haur ludoteka	32
Antzerkia: “Estamos raras”	33
Antzerkia: “Estudiando la sociedad”	34
Indarkeria matxisten sentsibilizaziorako kanpaina	35
Nerabe eta gazteentzako berdintasun lantegia	36
Erakusketa: “Ikusgarri. Egunero da martxoak 8”	37
Barrundiako Liburutegiko “Txoko morea” berdintasunaren aldeko liburuen aurkezpena	38
“Burutik jota”, Psico Woman	39

ELBURGO - BURGELU

BARRUNDIA

SAN MILLÁN - DONEMILIAGA


ASPÁRRENA

ZALDUONDO

SALVATIERRA - AGURAIN

ALEGRÍA - DULANTZI

IRURAZ - GAUNA



LAI Aeskola

Arabako Lautada

Lautadako LAIAeskolarako gonbita luzatzen dizuegu.

LAI Aeskola, Arabako emakumeon jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola, Arabako lurralde osoan zehar hedatzen da kuadrilla guztietara helduz, baita Trebiñuko Enklabera ere.

Hogeiak gora eskolez osatutako Euskal Autonomi Erkidegoko jabekuntza eskolen sareko kide da, estrategiak eta helburuak modu berezi batean partekatuz, LAIAeskolaren irismena udalerrri bakar batetik baino askoz haratago doa.

Lurralde anitz baten errealitatera moldatzeko apustuak eskola malgu, ireki eta dinamiko bat eskatzen du, eragile politiko, tekniko zein elkarteen parte-hartzeari esker modu kolektiboan eraikia.

Azken finean, LAIAeskolak kuadrillen, udalerrien, erakunde sozialen, mugimendu feministaren, emakumeen kolektibo zein elkarteen lana biltzen du, gure gizartea justuagoa, berdinzaleagoa eta indarkeriarik gabeta izan dadin.

Ondoko orrietan topatuko duzue Lautadako programazioa. Gorputzetik eta gogamenetik ekin eta formatzeko lantegiak; hausnarketak partekatu eta ideiak elkartrukatzeko inspirazio diren zinea, antzerkia edo literatura; gure begirada zabaldu eta gure ikuspegi propioa partekatzeko solasaldiak, topaketak eta ikasteko jardunaldiak.

Gu ezagutzeko gonbitea luzatzen dizugu, eskuartean *laia* hau hartu eta bertan parte har dezazun, elkarrekin batera parekidea ez den gizarte bidegabe eta baztertzaila honi eusten dioten oinarri eta oztopoak iraultzeko. Soilik horrela landatu, ernamuindu eta hazi ahalko gara berdintasunean.

Ongi etorri!!



Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena

2015ean Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua martxan jarri zen. Zerbitzu horretatik berdintasun politikak Kuadrillako eragile politiko eta teknikoekin, eta Agurain, Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga, Iruaiz-Gauna, Burgelu eta Zalduekoko Udalekin batera koordinatzen ditugu, eta batez ere, eskualdeko herritarrekin eta jendarte-egiturekin.

Gure helburua genero berdintasuna sustatzea da, hots, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun formal eta eraginkor baten alde lan egitea, indarkeriarik gabeko gizarte baten alde, sexu eta genero identitate aniztasuna errespetatzeko.

Gure ibilbidea Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean 2016-2019 oinarrituko dugu, Administrazioaren arlo guztientzat erabilgarria eta zeharkakoa den lan-tresna, eta herritarren artean eragin positibo eta ageriko bat ekarriko duena.

Arabako Lautadako I. Berdintasun Planaren ebaluazioa eta II. Berdintasun Planaren lanketa parte-hartzailea

Prozesu jarraitu eta estrategiko honetan, Lautadako Berdintasun Zerbitzuak "Kuadrillako I. Berdintasun Planaren Ebaluazioari" ekin dio biltzen dituen zortzi udalerrien errealitatea kontuan izanik, II. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana modu bateratu eta parte-hartzaile batez garatzeko.

Lehenengo pausoa, ebaluazioa, ezinbestekoa da politika eta plan publikoetan, erabiltzen ari garen tresnen asmatze eta akatsetatik ikasiz planifikatzeko. Horretaz gain, hiritarren gain duten eragina aztertuko dugu.

Horrexegatik, proiektu honi ekiten diogu eta herritar guztien laguntza eskatzen dugu, urtean zehar antolatuko ditugun formakuntza-ekintzetan parte hartuz.

Prozesu honen helburu orokorra berdintasun politikei buruzko informazioa ematea da eta aldi berean, gure udaletxeetan hauek nola gauzatzen diren eta Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planean zer proposamen txertatu daitezkeen berrikustea. Era berean, lurraldea osatzen duten udalerririk bakoitzeko berdintasun politikak gidatzen dituen dokumentua izango da.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRA EKITEKO INSTITUZIO ARTEKO KOORDINAZIO ETA ARRETARAKO PROTOKOLOA

Arabako Lautada lehena izan zen Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra ekiteko instituzio arteko koordinazio eta arretarako protokoloa onartzen lehena. 2017an ebaluatua izan zen eta 2018an **II. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontra Ekiteko Institutuzio arteko Koordinazio eta Arretarako Protokoloa** onartu zen, egun indarrean dagoena.

Protokolo horren jarraipena egiteko eta martxan jartzeko Kuadrillak Mahai Tekniko bat osatu du ondoko eragileen parte-hartze aktiboarekin: Osakidetza, Ongizate Sozialerako Foru Institutua, Arabako Lautadako Gizarte Ongizarterako Foru Erakundea langileen sarea, Ertzaintza, Kuadrillaren ordezkariak eta ikastetxeetako guraso elkarteak.

Mahai teknikoa mahai politiko batekin osatzen da, non eskualdeko instituzioetan presentzia nagusia duten indar politikoek hartzen duten parte: Kuadrillako lehendakaria eta alkateak.



Parte-hartze espazioak

EMAKUME ETA GIZONENTZAKO BERDINTASUN KONTSEILUA

Arabako Lautadako Kuadrillako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Kontseilua kontsulta, informazio eta aholkularitzarako organo gorena da, eta emakume, gizon, elkarte, talde zein Arabako Lautadako Kuadrillako udaletako erakundeen sustatzeko asmoa du. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun irizpidea sustatzea da bere helburua alor politiko, kultural, ekonomiko eta sozial ezberdinetanezberdinetan, hots: Agurain, Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga, Iruaiz-Gauna, Burgelu eta Zalduondo. Ekintza eremua Arabako Lautadako Kuadrilla eta haren udalerrriak izango dira.

Hileko hirugarren ostiralero batzen da, 17:15etan, Arabako Lautadako Kuadrillako Egoitzan.

Bestalde, hiru udal foro existitzen dira erakunde feministekin tokiko politikak adosteko.

MUGIMENDU FEMINISTA ETA EMAKUMEEN ELKARTEAK

- **Dulantzi:** 2019an **Dulantziko Talde Feminista** sortu da, batez ere, emakume gazteez osatua. Aurten udal ekintza eta politikak planifikatzen hasi da.
- **Asparrena:** Emakume talde motore txiki bat sortu da, zeinekin aurtengo zenbait ekintza koordinatu diren. Helburua koordinazio hori mantentzea da, emakume gehiagoren parte-hartzeaz sendotuz eta udal berdintasun politiketan eragiteko foro anitz bat osatzeko.

- **Barrundia:** Duela pare bat urte, politika publikoak eta udal ekintzak **Barrundiako Feministok** taldearekin koordinatzen dira, hasieratik emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Kontseiluan parte hartzen duen taldea baita.
- **Donemiliaga:** 2018an sortu zen **Donemiliagako Emakume Feministak taldea**, udalerrria osatzen duten ia hamabost herri guztietako emakumeen parte-hartzerako mugimendu anitza. Hileko lehen asteazkenean batzen dira udalerrian gauzatuko diren berdintasunaren aldeko udal politikak eta ekintza ezberdinak zehazteko.
- **Burgelu:** Duela zenbait urte berdintasunaren arloko ekintza **ARGIA elkartearekin** koordinatzen dira. Elkarrekin honek ere Lautadako emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Kontseiluan hartzen du parte.
- **Zalduondo:** Zalduondon emakume talderik edo talde feministarik egon ez arren, koordinazio jarraituak egon dira norbanako emakume zein gizonekin berdintasunaren aldeko ekintzak zehazteko. Udalerrri hau emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Eskualdeko Kontseiluan ere ordezkaturik dago.

LAI Aeskolaren programaren aurkezpena eta Arabako Lautadako Berdintasunaren aldeko Eskualde Topaketa

LAI Aeskola 2019-2020ko programazioa aurkeztuko dugu Arabako Lautadako Berdintasunaren aldeko Eskualdeko Topaketan, eta ostean, Irantzu Varelaren solasaldi batekin jarraituko dugu, datozen urteetako landa eremuko tokiko berdintasun politiken erronkei buruz. Segidan, Helena Ortiz de Lejarazu Red Quorumeko ki-deak, batetik, taldekako prozesu parte-hartzaile bat koordinatuko du talde feministekin, eta eskualdeko emakume elkarteekin eta bestetik, politika arloko langileekin Arabako Lautadako Berdintasunerako II. Planerako ideiak jasotzeko. Belén Nevadok itxiko du saioa umorez eta bere ondorio teatralizatuen bidez.

Dinamizazioa: **Irantzu Varela**, Faktoria Lila
Belén Nevado, Detritus Teatrus

Data eta ordua: **2019ko urriaren 19a**
larunbata 10:30etik 15:00etara

Tokia: Barrundiako Udaletxea

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Arabako Lautadako emakume eta gizonen
arteko Berdintasunerako Kontseilua

Kolaboratzailea: Barrundiako Udala

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

“Ordu bioleta” Irakurle-Klub Feminista gaztelaniaz

Irakurle-Klub Feminista topaketa, hausnarketa eta eztabaidarako espazio bat da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, bizimodu... ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko.

Eleberriak, saiakerak, iritzi artikulak, poesia... irakurriko dugu eta liburuetako edukiari buruzko norberaren iritzia besteenekin osatuko dugu.

Esperientziak partekatzeko eta feminismoaz ikasteko baliagarria ere izango zaigu. Klub hau jabekuntzarako eta norbera aberasteko benetako espazioa da guretzat.

Eta are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

Koordinatzailea: **Begoña Etayo Ereña**, genero berdintasunean eta garapenerako lankidetzan aditua eta María de Maeztu Forum Feministako kidea

Data eta ordua: AURKEZPENA:
2019ko urriaren 21a
astelehena 18:00etatik 20:00etara
Aguraingo liburutegian

**Hileko hirugarren
astelehena, ordu berean**

Tokia: Hurrengo tokiak lehen saiora hurbiltzen diren emakumeekin batera erabakiko dira

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Arabako Foru Aldundia
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Kuadrillako Udalak

Informazio +: Tokien mugatuak: 20



Emakumeen ekarpen historikoa Zalduondon

Proiektu honen helburu nagusia parte-hartze prozesu bat sustatzea da, memoria historikoak eta emakumeek Zalduondoko Udalerriari egindako ekarpena berreskuratu eta jasotzeko.

Prozesu parte-hartzaile horren helburu zehatzak ondokoak dira:

- Laburmetrai/bideo baten gidoia adostea.
- Prozesuan modu aktibo zein pasiboan parte-hartzen duten emakumeen burujabetza eta jabekuntzaren garapena sustatzea.
- Genero kontzientzia bideratzea.
- Rol en eta estereotipo sexistak ezabatuz balore aldatuta sustatzea.
- Herrian aztarna utzi zuten emakumeen bizitza eta memoria ikusgarri egitea.
- Belaunaldi ezberdinen arteko sareak sortzea.

Arduraduna: **AZ Parte-hartzea**, berdintasun eta parte-hartzerako aholkularitza **Dronetikan AirWorks**, ikus-entzunezko edukien sorkuntza, garapen eta produkziarako plataforma anitza.

Prozesu parte-hartzailea: **2019ko apiriletik azarora**
Dokumentalaren aurkezpena:
2019ko urriaren 26a
larunbata 19:00etan

Tokia: Zalduondoko Udaletxea

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Zalduondoko Udala
Zalduondoko Kultur Elkarte

Kolaboratzaileak: Vital Fundazioa
Arabako Foru Aldundia

Indarkeria matxisten aurkako kanpaina “Itzali matxismoa, jazarpenari aurre egin”



“Itzali matxismoa, jazarpenari aurre egin” jaietarako kanpainen parte-hartzeko gonbita luzatzen dizuegu, Lautadako herri guztietako jai eremuetan antolatuko dena, teknologia berrien bidez gauzatzen diren indarkeria matxisten kontra.

Kanpainerako herritar guztientzako txapak banatuko dira eta establezimendu pribatu eta erakunde publikoetan biniloak jarriko ditugu. Hiru pan-karta ere eskuragarri izango dituzue eszenatokietan edo jai eremuetan jartzeko. Kuadrillaren egoitzan eska-tu daitezke.

Aurten kanpainaren diseinua Zalduondoko Udalak koordinatu du.

Data eta ordua: **Arabako Lautadako herrietako jaiak**

Tokia: Herrietako jai eremuak

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua Arabako Lautadako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Kontseilua

Kolaboratzailea: Arabako Lautada Bizirik ACICSA (Lautadako Merkataritza eta Ostalaritza)

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Donemiliagako emakumeen beharren azterketa berdintasunaren ikuspegitik



Donemiliagako Emakume Feministak eta Donemiliagako Udalak, emakumeen beharrak, desirak eta ametsak identifikatzeko eta emakumeek parte-hartzeko zailtasunak antzemateko, Done-

miliagako emakumeen beharren mapa egingo dugu **BERDINTASUNAREN IKUSPEGITIK**. Horretarako Mentxu Ramilok lagunduko digu.

Kolaboratzailearen lanak bi helburu ditu: batetik, Donemiliagako talde feministako emakumeek beraien eremu-ikerketan laguntzea, udalerriko emakumeen beharrak, zailtasunak, parte-hartzeko oztopoak ezagutzeko eta parte-hartzeko existitzen diren espazioak zabaltzeko, eta bestetik, berdintasunerako haien behar eta proposamenak etab. planteatzeko.

Dinamizatzailea: **Mentxu Ramilo Araujo,**

doktorea da Politika eta Administrazio Zientzietan, EHUUn. Profesional in(ter) dependientea

Data eta ordua: **Lehenengo prestaketa bilera 2019ko irailaren 18an izango da, asteazkena**

Tokia: Lehenengo saioa: Donemiliagako Udaletxea. Ostean, udalerria osatzen duten beste 15 herrietan

Norentzat: Donemiliagan bizi diren emakumeak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Donemiliagako Udala
Donemiliagako Emakume Feministak



Beldur Barik Gunea

Eraso sexistak prebenitu, detektatu eta aurre egiteko, gunea da. Bertan, informazioa, txapak egiteko aukera, pegatinak eta bestelako materialak topatuko dituzu, eta horrelako egoerei aurre egiteko zalantzak argitu ahalko dituzu. Espazio horren helburua herritarrak konzientziaztea eta indarkeria sexistaren kontra eragile aktibo bilakatzea da.

Indarkeria sexistarik gabeko jai batzuen alde!!

Dinamizazioa: **MURGIBE**, Berdintasun aholkularitza

Data eta ordua:	2019ko irailaren 21a larunbata 00:00etatik 03:00etara	2019ko urriaren 11 ostirala 21:00etatik 00:00etara
------------------------	--	--

Tokia: Txosnagunea, Añua Bidea, Dulantzi | Jai eremua, Agurain

Norentzat: Herritarrak, gazteak bereziki

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzaileak: Dulantziko Udala | Aguraingo Udala

Informazio +: www.laiaeskola.eus

Berdintasunaren aldeko ipuin laburren III. lehiaketa

Lehiaketa honek helburu bikoitza du: batetik, sorkuntza literarioa eta irudimena bultzatzea; bestetik, herritarrak emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruz sentsibilizatzea.

Hortaz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten duten ipuinen alde joko dugu, tradizio eta estereotipo roletatik urruntzen direnak. Ipuin irabazleek saria jasoko dute eta azaroaren 22an irakurriko dira, azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz.

Data eta ordua: **2019ko irailaren 22tik
azaroaren 22ko sari-
banaketara arte**

Tokia: Agurain

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aguraingo Udala

Informazio +: Kategoriak: Haurrak euskaraz eta gaztelaniaz;
gazteak euskaraz eta gaztelaniaz;
helduak euskaraz eta gaztelaniaz

Jolas Hezkideen X. Jaialdia



Jaialdiak aisialdi ez-sexistarako espazio bat sortu nahi du, pertsona guztiek modu parekidean eta diskriminazio sexistarik jasan gabe parte har dezaten. Jolasen, mailegurako ludotekaren eta euskarazko jolasen eremuaren aurkezpena egingo da, eta haur jolasentzako espazio bat prestatuko da txikitxoentzat. Nobedade gisa, jolas berri bat dugu aurten, Lego Serious Play. Bestalde, Diego García hizlaria gurekin izango dugu: "Ikasgelan jolasean: jolasaren erabilera genero irakaskuntzarako tresna gisa ikasgelen barruan".

Dinamizazioa: **Argia Emakume Taldea**

Data eta ordua: **2019ko irailaren 28a eta 29a**
larunbata eta igandea 10:00etatik
14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara

Tokia: Burgelu

Norentzat: Familiak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Argia Emakume Taldea
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Burgeluko Udala

Antzerkia:

“Lur”

Julian jostailu denda zahar baten jabea da. Egun batzuk barru Ane, bere bilobak, zortzi urte beteko ditu eta opari berezi bat prestatzen ari zaio. Propio berarentzat egindako panpina. Anek eta Julianek bidaia zirrargarri bat hasiko dute panpinarekin batera desioak betetzen dituen izar majikoaren bila. Itxuraz bidaia irudimentsua dirudienak Ane eta Jon bere aitaren arteko harremana berbideratzen lagunduko du. Azken aldian Jonek onarpen arazo bat dauka. Izan ere, Ane mutila da.

Dinamizazioa: **XAKE produkzioak:** Mikel Laskurain, Erika Olaizola, Nerea Gorriti eta Kepa Errasti

Data eta ordua: **2019ko abendua**

Tokia: Andra Mari Aretoa, Araia

Norentzat: Herritarrak, 3 urtetik aurrera

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Asparrenako Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ikastaroak

Saio hauek partaideek euren burua hobeto ezagutzeko eta emakumeen eskubideei buruzko jakintzan sakontzeko helburua dute. Modu erraz batean zergatik ezberdinu behar diren gizonen eta emakumeen jarrerak du helburu. Parte-hartzaileek segurtasun sentazio bat bizko dute beste emakumeenganako konexio eta empatiari esker. Haien eskubideei buruz ere jakintza sakonago bat garatu dezaten ahalbidetuko da.

Formatzailea: **Yolanda Pastor Tellechea,**
coaching pertsonala, terapia sistemiko erlazionala, norbere garapenerako eta osasunera bideratutako pedagogia sistemikoa, *mindfulness*

Data eta ordua: **2019ko urria, azaroa eta abendua, 2 orduko 5 saiotan bakoitzeko**

Tokia: Sallurtegi Elkartearen lokalean

Norentzat: Herritarrak, emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Aguraingo Sallurtegi Elkartea

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hilabeteko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Argazki erakusketa: “Artea kirolean... eta zuk hemen zer?”



“Artea kirolean... eta zuk hemen zer?” argazki erakusketak kirol munduko emakumeen egoera ikusgarri egiteko eta babesteko gonbita luzatzen digu, amateurra zein profesionala izan. Niksquash Emakume Klubeko kideak Gema Orobengoaren argazki hauetako protagonistak dira eta haien gorputzak mihise dira Sandra Estarronaren pintzelarentzat, itxaropenez, dedikazioz eta kirol-ahaleginez apainduak. Helburu bakarra kirol munduko emakumeen egoerari buruzko begirada kritiko bat sortzea da eta emakumeak sostengatzeko gonbita luzatzea kirol arloan aukera berdinez parte har dezaten.

Dinamizazioa: **NIKSQUASH**, Emakumeen Squash Kluba

Data eta ordua: **2019ko urriaren 14tik 31ra**

Tokia: Mikaela Portilla Kultur Etxea, Dulantzi

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Dulantziko Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
ADR Lautada

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia:

“Emakume oso eta kontzientea”

Emakume oso eta kontzientea emakumeei soilik zuzendutako espazio bat da, gure botere pertsonala onartu eta gure burua birsor dezagun. Prozesu esperientzia oso bat, “Emakumearen bidaia heroikoa, bidaia liluragarri bat osotasunerantz”.

Nor naizen, baldintzatu eta eusten nauten proiektu eta **sinesmenak**, zer **muga** eta **baliabide** ditudan, nire gaitasuna garatzeko zer **baimen** behar ditudan ikusten joateko prozesua da: **eguneraketa/aldaketa/berrespen jarraitu** baten prozesu bat, norbere burua bizitzea zer den, naizen emakumea sostengatzea, nire feminitatean bizirik egoteko botere puntu gisa, eta beste emakumeen konpainian.

Dinamizazioa: **Erika Gloria Calzada**, *coach*
emozionala y eta elkarteentzako
bideratzailea

Data eta ordua: **2019ko urriaren 15etik**
2020ko ekainera arte
asteartea 19:00etatik 21:00etara

Tokia: Mikaela Portilla Kultur Etxea, Dulantzi

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Dulantziko Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Gehienez 12 tiki
Izen ematea Mikaela Portilla Kultur Etxean;
945 30 12 00;
berdintasun@arabakolautada.eus

2019ko Berdintasunerako Foroa: “Nik erabakitzen dudana izango naiz”

Emakundek “Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa” jartzen du martxan, erakunde publikoek eta pribatuek haien ekimenetako batzuk emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde bidera ditzaten topaketarako espazio bat da.

Espazio plural eta ireki bat da non Arabako Lautadako Kuadrillak espazio ibiltari baten bidez “Emakunderen autobusa” parte-hartuko duen. Autobusak urteko azken lauhilekoan gure Eskualdeko lurraldeak zeharkatuko ditu eta besteak beste, Foroaren ekintzen topagune gisa funtzionatuko du.

Dinamizazioa: **Emakunde**

Data eta ordua:	2019ko urriaren 18a ostirala 10:00etatik 16:00etara	2019ko urriaren 25a ostirala 16:00etatik 20:00etara	2019ko urriaren 26a larunbata 16:00etatik 20:00etara “Zalduondoko emakumeen Memoria historikoa” dokumentala aurkeztuko da
Tokia:	Aguraingo eskola eremuko aparkalekua	Herriko Enparantza, Dulantzi	Zalduondoko Udala, Arbin Auzoa, 3
Norentzat:	Aniturri BHI, Lope de Larrea HLHI eta Lautadako Ikastola	Herritarrak	Herritarrak
Hizkuntza:	Elebiduna	Elebiduna	Elebiduna
Antolatzaileak:	Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua Aguraingo Udala	Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua Dulantziko Udala	Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua Zalduondoko Udala

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hilabeteko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00; berdintasun@arabakolautada.eus



Berdintasunaren aldeko eta Kuadrillako emakumezkoen kirola sustatzen duten klub eta kirol-elkarteen errekonozimendurako bizikleta martxa

“Lautada Eguna”-ren markoaren baitan, aurten Asparrenan urriaren 29an ospatuko dena, bizikleta martxa bat antolatuko da Dulantzi inguruan urriaren 20an kiroletan ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bul-tzatzeko. Martxa amaitzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten elkarte eta kirol klubei aitorten txikia egingo zaie.

Data eta ordua: **2019ko urriaren 20a**
igandea 11:00etan

Tokia: Dulantzi

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Kuadrillako Udaletako Kirol Zerbitzuak
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
ADR Lautada

Kolaboratzailea: Dulantziko Udala

II. Burgeluko Emakume Autonomoen Topaketa: “Bigarren atalak beti izan dira hobeak”

“Bosgarren Olatua (maitasuna da)” Burgeluko enpresamunduko emakumeekin lehen topaketan elkartrukerako eta hartu-emanerako espazio kolektiboak birdefinitzeko egiazko beharra zegoela identifikatu zen.

Orain, ikasitakoa aprobetxatuz ondokoa planteatu nahi dugu: lehenengo egunean geure buruarekin konektatuko gara, besteekin kontaktua berrartu eta nahi zein gauzatu ahal ditugun ekintzei buruz arituko gara. Bigarren egunean, ekintza plan bat garatuko dugu, gure proiektuaren epe eta ardurekin.

Prozesuan laguntza: **May Serrano** eta **Silvia Allende**, komunikazioan eta emakumeen jabeakuntzan formatzaileak
Bosgarren olatua (maitasuna da)
egitasmoko kideak

Data eta ordua: 2019ko urria

Tokia: Burgeluko Udala

Norentzat: Burgeluko emakume autonomoak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Ipuin kontaketa: “Zazpi neska ausart”,

kontalari eta saxofonista baten eskutik

Bazen behin herri txiki batean bizi ziren lau neskato. Ameslariak ziren eta urrunera joan nahi zuten, baina haien etxean beti atzetik esaka ibiltzen ziren: "Kontuz ibili! Mundua arriskutsua da!". Haztean dirua aurreztu eta munduari bira emateko adorea izan zuten eta bidetik hainbat istorio eta oztopo gainditu behar izan zituzten.

Ipuin honetan genero berdintasuna, laguntasuna, beldurak eta jabekuntza landuko dira.

Dinamizazioa: **ALARA**, kultur eta kirol kudeaketa

Data eta ordua: **2019ko urria**
ludoteka ordutegian

Tokia: Landederra kiroldegian, Burgelu

Norentzat: Haurrak, 4 urtetik aurrera

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Kuadrillako Euskara Zerbitzua
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: “Feminismo beltzak, periferikoak eta dekolonialak”

Zuriak ez diren emakumeak, esklabizatuak, esplotatuak rol protagonista izan dute, batetik, bizirauten eta beraien askatasunaren alde borroka eginez eta haien eskubideak aldarrikatuz, eta ondorioz, emakume guztien askapenean ekarpena eginez. Eta ez alderantziz. “Emakumeak, arraza eta klasea”-n Angela Davis afro-amerikarrak egiten duen kritika da. Borroka horiek eta haien protagonistak zokoratuak izan ziren eta mendebaldeko feminismo zuria okzidentalak feminismo hegemoniko bezala eraiki zen.

Interseksionalitatea ekintzarako eta feminismo dekolonialerako tresna bat da, eta bestalde, elkarren artean konektatuta dauden errealitate konplexuen inguruko hausnarketa eta irakurketa kritikoak proposatzen ditu.

Dinamizazioa: **Gladys Giraldo Velásquez,**
ekintzaile feminista

Data eta ordua: **2019ko urria**

Tokia: Zabalarte aretoa, Agurain

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aguraingo Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus
Sarrera librea lekua bete arte

Lantegia: “Pribilegio gabe ez dago zapalkuntzarik”

Ordena kapitalista, heterosexual, patriarkal eta kolonialista baten pean bizi garen gizarteetan sistema oso konplexu baten mandatuetatik at dauden emakumeengan gogorrigo eragiteko mekanismo eta tresna ezberdinak garatu dira, eta hortaz, menderatze, bazterketa eta zapalketa diskriminazioak sortzen dira, hierarkian oinarritutako oinarri bat izateko edozein forma sozial eta politikoren baitan eta boterea bermatzeko.

Lantegi honetan metodologia ludiko eta parte-hartzailleen bidez pentsamendu feminista dekolonialera hurbiltzen saiatuko gara, elkarrekin zapalkuntza anitzak sostengatzeko, adierazteko eta gauzatzeko eguneroko forma anitzak identifikatzeko metodologia bat garatzeko asmoz, eta pentsamendu kritiko bat garatzera bideratuko gaituzten tresnez horni gaitezen, gizarte hobekak eraikitzen elkarri laguntzeko.

Formatzailea: **Susana Leyton Camardelli,**
soziologoa, ekintzaile feminista

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 8a**
ostirala 17:30etik 20:30era

Tokia: Herriko Enparantza 8, Araia

Norentzat: Herritarrak, batez ere gazteak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Asparrenako Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Indarkeria matxisten kontrako martxa Ozetatik Gebarara



Duela zenbait urte Barrundiako feministak sortu eta indarkeria matxisten kontrako martxa antolatzen hasi ginen...

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 25a**
astelehena 18:00etan

Tokia: Ozaetatik Gebarara, Barrundia

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Barrundiako Emakume Feministok

Kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Barrundiako Udala

Coral Herrerarekin Solasean: “Erromantikotasuna politikoa da: maitatzeko beste modu batzuk posible dira”

Maitatzen duten emakume askorentzat maitasuna begitazio kolektibo arriskutsu bat izan daiteke. Maitasuna lortzeko lehenengo sufritu behar dugula sinestarazten digulako, eta sufrimendua maitasun adierazpen bat dela maitatzen dugun pertsonarekiko, eta beraz, tranpan erortzen gara patriarkatuak belauniko nahi gaituela ohartu gabe. Izan ere, maitasunaren bilaketa gure bizitzaren ardatz izan behar du, maitatua izatearen desirak mendeko eta otzan bila gaitzan eta gure afektibitatearen gailurrean gizon bat jar dezagun, jainko bat balitz bezala debozio osoz gure burua entrega dezagun.

Dinamizazioa: **Coral Herrera Gómez,**
Giza Zientzia eta Ikus-entzunezko
Komunikazioan Doktore, ikerlaria eta idazle
feminista

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 6a**
asteazkena 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Zabalarte aretoa, Agurain

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aguraingo Udala

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Antzerkia: “Sex edo ez sex”



Edadetuentzako ikuskizuna. “Oihulari Klown” taldearen eta Viginia Imazen eskutik parodia klown honetaz gozatuko dugu. Pauxa pailazoak bizi-tza, heriotza eta sexuari buruz galdetzen dio bere buruari, publikoa bere hausnarketen konplize eta testigu bilakatuz. Umorez eta goxotasunez bere gai sexualen eta harreman sexualen hastapenez mintzatuko zaigu. Protagonista aukera berriak eskainiko dizkigu ikuspuntu feminista eta ireki batetik.

Dinamizazioa: **Virginia Imaz**, pailazoa eta Oihulari Klown antzerki taldeko kontalaria, Emakunderen Berdintasun saria

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 9a**
larunbata 18:00etan

Tokia: Okiturri kiroldegia, Durruma

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Donemiliagako Udala
Donemiliagako Emakume Feministak

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

“Txorien Jantokiak” haur ludoteka



Hiru espazio ezberdin: bata eskulanetarako, beste bat margotzeko eta sorkuntza asmatzeko, eta azkenik, jolastu eta dibertitzeko espazio bat.

Dinamizazioa: **ORBELATAN Kultur Elkarte**

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 9a**
larunbata 18:00etan

Tokia: Okiturri kiroldegia, Durruma

Norentzat: Haurrak eta gazteak 13 urte arte

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Donemiliagako Udala
Donemiliagako Emakume Feministak

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Antzerkia: “Estamos raros”



Komedia fresko eta lotsagabe bat, non errealitate barregarri bilakatzeko den gure eguneroko drama zentzugabe eta barregarrien bidez. Zazpi *sketchen* segida irratsaio bateko lehiaketa zoro batean.

Dinamizazioa: **Raras - Frescultura**, bikote komikoa eta Facebook eta YouTubeen milioi bat baino erreproduzio gehiago daukate. Bikoteak, 30 milioi jarraitzaile baino gehiago du sareetan

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 24a**
igandea 18:30ean

Tokia: Burgeluko Udaletxea

Norentzat: Herritarrak, 16 urtetik aurrera

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala

Kolaboratzaileak: Arabako Foru Aldundia
Argia Emakume Taldea

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Antzerkia: “Estudiando la sociedad”

Estudiando la sociedad emakumeen aurkako indarkerien problematika ezberdinak lantzen ditu, esplizituenetik hasita egiturazkoagoak diren beste batzuk arte, betiere genero rolen ezberdintasun eta hierarkiak eta emakume “perfektuei” inposatzen zaizkien genero be-tebeharrak azpimarratuz.

Dinamizazioa: **ALARA**, kultur eta kirol kudeaketa

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 25aren inguruan**

Tokia: Arabako Lautada

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzaileak: Lautadako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Kontseilua

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hilabeteko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Indarkeria matxisten sentsibilizaziorako kanpaina

Iruraiz-Gaunako udalak herritar anitzak ditu bere ha- maika herrietan. Horregatik, berdintasunaren aldeko ekintzak udalerriko jaietan kontzentratzen dira, ekai- nean. Azaroan, aurten, udalerriko batzorde administra- tiboetan banatuko diren esku-orrien bidezko kanpaina bat egingo da, eta LUZKANDO udal aldizkariaren bidez emango zaio hedapena.

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 25aren inguruan**

Tokia: Udalerria osatzen duten herri guztiak

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Iruraiz-Gaunako Udala

Kolaboratzailea: Presidentzia, Gortekin Harremanetarako
eta Berdintasuneko Ministerioa

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hilabeteko buletina,
sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Nerabe eta gazteentzako berdintasun lantegia



Berdintasunaren eta indarkeria matxisten inguruko oinarrizko lantegia, genero desberdintasuna eta genero indarkeriaren adierazpen ezberdinak nerabe eta gazteen bikote harremanetan aztertzeko. Hiru ordutan zehar, ondorengo helburu zehatzak landuko dira:

1. Berdintasunarekin eta indarkeriarekin lotutako terminologiari buruzko eduki teorikoak eskaintzea.
2. Neska-mutilek sozializazio prozesuetan genero ezberdintasunak detektatzea.
3. Bikote harremanetako genero indarkeriaren kausa eta indarkerian oinarritutako harremanen iraupenaren zergatia ulertzea.

Dinamizazioa: **Sheila Melcon López,**
dinamizatzailea, nerabe eta gazteekin lan esperientzia zabala, ikerlaria eta feminista

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 29a**
ostirala 18:00etan

Tokia: Mikaela Portilla Kultur Etxea, Dulantzi

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Dulantziko Udala
Dulantziko Talde Feminista

Erakusketa: “Ikusgarri. Egunero da martxoak 8”



Erakusketa “Ikusgarri. Egunero da martxoak 8” berdintasunaren aldeko ekimen bat da, “reBelando” kolektiboak sustatuta eta 2019 urtearen hasieran jaio zen egungo jendartearen aukera berdinak ez dituzten kausa, kolektibo edo egoerak ikusgarri egiteko.

Erabilitako liburuak martxoaren 8an izango dira ikusgai hurbiltzen diren pertsonen berdintasunaren inguruan dituzten pentsamenduak, ideiak, hausnarketak eta emozioak idatz ditzaten.

Dinamizazioa: “reBelando” kolektiboa, argazkilari talde batek berdintasunaren aldeko nazioarteko mugimendu honetan parte hartzea erabaki zuen “Ikusgarriak” proiektuaren bidez

Data eta ordua: 2019ko abendua

Tokia: Burgeluko Udaletxea

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala

Kolaboratzaileak: Arabako Foru Aldundia
Argia Emakume Talea

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Barrundiako Liburutegiko “Txoko morea” berdintasunaren aldeko liburuen aurkezpena

Barrundiako Liburutegia haur eta gazteentzako liburu berriez hornitu da eta literaturaren bidez berdintasunaren inguruko hausnarketa sustatu nahi da.

Dinamizazioa: **Barrundiako Liburutegia**

Data eta ordua: **2019ko abendua**

Tokia: Barrundiako liburutegia

Norentzat: Herritarrak, bereziki familiak, nerabeak eta gazteak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Barrundiako Udala

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus
Sarrera librea lekua bete arte

“Burutik jota”, Psico Woman



Psico Woman YouTubera heldu da patriarkatua erraietatik suntsitzera.

Feminismoak hamaika modutan aldarrika dezake: idatziz, dantzatuz, oihukatuz, konferentziak emanez, abestuz, *performanceak* edota lantegiak eginez, emakume taldeak sortuz, autodefentsa praktikatuz, bazterretatik, *perreatuz*, emakume, gizon, trans, galdera ikurra izanik...

Hau, nire forma da. Ongi etorria denoi #TODALOCA-ra.

Dinamizazioa: **Isa Duque-Psico Woman**,
psikologoa, sexologoa eta *youtuberra*

Data eta ordua: **2020ko urtarrilaren 8a**
asteazkena

Tokia: Agurain

Norentzat: Nerabe eta gazteak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Aguraingo Udala

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hilabeteko buletina,
sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus
